

UPV/EHU-KO IKASLEEN V. BILTZARRA

NIRE GRADU AMAIERAKO LANAK (GrAL) MUNDUA ALDATZEKO BALIO DU

2022

Gradu Amaierako Lanaren Izenburua (GrAL)

Amatasuna burdin hesien atzean: ama diren emakumeen espetxeratzearen azterketa feminista.

Egilea

Oihane Villate Uribe

Gradua

Gizarte Langintza

Zein Ekarpen egiten die GIHei (Garapen Iraunkorreko Helburuei)

5. Genero berdintasuna,
10. Desberdintasunak murriztea

Laburpena

Lan honetan, espetxe-sistema patriarkatua eta androzentrismoan oinarritzen dela kontuan hartuta, espetxeratu egiten diren emakumeengan dituen ondorioak aztertu eta ikusarazi nahi dira, bereziki ama diren horien errealitateak. Era berean, Espainiar Estatuko eta Euskadiko espetxeek emakumeen eskubideak betetzeko eta horien beharrezkoak asetzeko duten gaitasuna aztertu nahi da. Lan honetan metodologia kualitatiboa zein kuantitatiboa erabili dira, ikerketa-objektuaren errealitateak ahalik eta modu holistikoa eta integratiboa hurbiltzeko. Horrela, alde batetik, dokumentuen azterlanaren teknika erabili da; eta bestetik, bost sakoneko elkarrizketa egin dira, elkarrizketatuak ikerketa objektuaren inguruan duten jakintzagatik aukeratu direlarik (Euskal Herriko emakume presoak eta espetxe-sisteman adituak diren eta EHU doktoreak diren bi emakume, "Asociación de Ayuda a Personas Presas" elkartearen koordinatzailea, Salhaketa Nafarroako koordinatzailea eta Arabako espetxeko emakume presoak gizarte langile erreferenteak). Gauzak horrela, lan honetan lehendabizi gure gizartearen indarrezko dagoen espetxe-sistemaren aurrean agertzen diren posizionamendu desberdinak aztertu dira. Izan ere, kartzela gure gizartearen barneko elementutzat hartzen da, hau da, gure bizitzan beti egon den eta beti egongo den instituziotzat. Hala ere, gure artean sistema horren inguruko hainbat eztabaida eta ikuspegi kritiko agertu dira, lan honetan gailendu diren bi mugimendu aztertu direlarik: mugimendu erreformista eta abolizionismoa. Halaber, feminismoaren barnean ere eztabaida klasiko hori bizirik dagoelarik, indarkeria matxistari aurre egiteko borrokan espetxe-sistemarekin duten

harremanean oinarrituta bereizten diren hiru korrante aztertu izan dira: zigorraren feminismoa, erregulazioaren feminismoa eta feminismo kritikoa. Horrekin batera, historian zehar espetxeratuak izan diren emakumeen inguruan nagusitu den iruditegi soziala deskribatzen da, izan ere, emakume presoek historian zehar estigma eta diskriminazio larria pairatu dute, emakume horiek gizonak baino "primitiboagoak" eta "munstroak" zirela defendatzen zelarik. Gaur egun, nahiz eta aurrerapauso handiak eman diren, ez dira guztiz gainditu emakumeen delinkuentziaren inguruko azalpen sexistak, horiek "ahul" edo "gaixo mental" gisa aurkezten dituzten ikuspegiak garrantzia izaten jarraitzen dutelarik. Dena den, antzemandako ahultasun horrek ez du emakume horiek jasotzen duten zigorraren malgutasuna edo murriztapena ekarri; are gehiago, emakumei legearen urraketaz gain, sistema patriarkalaren ideario femenino hegemonikoa haustea egozten zaie, horrela, kondena hirukoitza pariatzen dute: penitentziarioa, soziala eta pertsonala. Hori gutxi balitz, emakumeen identitatea zaintzeko eta ugaltzeko gaitasunera mugatzen duen sistema heteropatriarkal batean, amatasuna ere kartzela zigorra zailtzen duen faktorea da, bai seme-alabak espetxe barruan dituzten emakumeentzat bai espetxetik kanpo dituztenentzat. Izan ere, "emakume txarra" izatea aurpegiratu ez ezik, "ama txarrak" izatea ere egozten zaie, hala, delitu-zigorra eta ama izateko gaitasuna nahasiz. Zentzu horretan, emakumei eta amei esleitzen zaizkien rol tradizional eta patriarkalak ez betetzeagatik ama diren emakume presoek beste presoek zein funtzionarioen presioa eta arbuioa jasaten dute, horrek sarritan dakarren erruduntasun eta porrot sentimenduekin batera. Halaber, GRAL honetan azaldu bezala, emakume presoak haien etxeko unitatearen ohiko zaintzaile nagusiak izaten dira eta beraz, espetxealdiaren ondoriozko familia-desegituraketa prozesua gizonen kasuan baino larriagoa izan ohi da, emakumeen seme-alaben tutoretza galtzeko arriskua ere handiagoa izanik. Era berean, lan honetan Espainiar Estatuan dauden presoek ezaugarriak aurkezten dira, batez ere emakume presoek profila kriminologiko eta sozialera gerturatuz. Aipatzekoa da Barne Ministerioaren datuen arabera, Espainiar Estatuan, 2020an, 55.180 pertsona zeudela espetxeratuak, horietatik % 7,3 emakumeak izanik. Preso dauden gizonen eta emakumeen arteko alde handiari dagokionez eta pertsonen inguruko faktoreek, gabeziek eta presoek delituak egitea errazten dutela dioen ideari jarraituz, esan beharra dago emakumeek delitu gutxiago egikaritzen dituztela lege-urraketak saihesteko estrategia desberdinak garatzen dituztelako. Estrategia horien artean aurkitzen ditugu, hala nola, emakumeen gaikuntza-mailatik behera dauden lan prekarioak onartzea, lagundutako ugalketako teknikak erabiltzeko proposamenak onartzea, obuluak saltzea, prostituzioan aritzea edo itunpeko ezkontzak onartzea. Emakumeen espetxeratzearen haritik eta delitu zein espetxe-profilari erreparatuz gero, ikus daiteke emakume presoek artean jabetzaren eta ordena sozioekonomikoaren zein osasun publikoaren aurkako lege-urraketak direla arruntenak, 2020an emakume presoek delituen % 70,1 ordezkaturik Barne Ministerioaren datuen arabera. Gizonen kasuan ere, ondarearen eta osasun publikoaren aurkako delituak dira lehen eta bigarren tokian kokatzen direnak (% 56). Puntu honetan aipatzekoa da emakumeen lege-urraketetan agresibitate edo pertsonen aurkako indarkeria txikiagoa nagusitzen dela, edonola ere, Barne Ministerioaren datuen arabera 2020an lehen graduan kalifikatutako emakumeen tasa (% 1,2) gizonenaren antzekoa zen (% 1,5) eta emakume preso prebentiboek ehuneko (% 14) eta gizon prebentiboena (% 15,8) ia parekoa zen. Horrela, ematen du askotan emakumeen

aldetik espero den jarrera otzana ez betetzeak jasotako erantzunaren gogortasuna emendatzen duela. Halaber, garrantzitsua da aipatzea Espainiar Estatuan Emakume atzerritarren gainordezkapena dagoela, 2020an emakumezko preso guztien artean atzerritarrak % 27,5 izanik Barne Ministerioaren arabera. Horrela, aske dauden 10 emakumetik 1 atzerritarrak dira, baina espetxe-sistemaren baitan, 10etik 3 dira atzerritarrak; beraz, espetxealdiak "erakunde arrazalizatzaile" gisa funtzionatzen du. Jaioterria edo arraza ez ezik, badira beste ezaugarri pertsonal batzuk emakumeen kriminalitatearen ezaugarri diren faktore komun gisa funtzionatzen dutenak, izan ere, asko dira segurtasun ekonomikorik gabeko emakumeak, askotan lanbide-prestakuntzarik gabeko eta etxeko- eta zaintza-lanei lotutako enplegu prekarioekin. Gainera, emakume horiek ez omen dute izaten ikasketa-maila altuegirik, gehienak amak eta gurasobakarrak dira eta asko dira ere genero-indarkeriaren biktimak eta depresioa, arazo psikiatrikoak edota droga-menpekotasuna bezalako osasun-arazoak izan dituztenak. Honekin batera, GRAL honetan emakume presoak espetxe-araudian aztertu egin dira, ikusi egin delarik Espainiar Estatuan emakumeen kondena penitentziarioa espetxe-sistemaren baitan emakume presoek eskaintako arreta eskasak ezaugarritzen duela, ordenamendu juridikoan genero-ikuspegia kontuan hartzen ez delarik. Horrela, gure sistema patriarkalean maskulinoa dena erreferente unibertsal bihurtu da, emakume izateak dakartzan genero-berezitasunak baztertu direlarik. Testuinguru honetan emakume presoek kasuan espetxe-araudia etengabe urratu egiten da. Hain zuzen, Espainiar Estatuan gizonentzat 76 espetxe dauden bitartean, emakumeek zuzendutako lau espetxe daude. Emakumeentzako espetxe horietan ez dauden emakumeak (% 80,9), emakumeen moduluak dituzten Estatuko Administrazio Orokorreko 43 espetxeetan zehar banatuta daude, 43 espetxeen artean 35ek modulu arrunt edo errespetuzko bakarra dutelarik. Gauzak horrela, espetxe arautegia etengabe urratzen da emakume presoek kasuan, kanpoarekiko harremana eta komunikazioa presoek sailkapenaren eta gradu progresioaren tresnen erabilera zaildu egiten baita. Gainera, seme-alabak espetxean dituzten emakumeen egoera prekarioa da. Espainiar Estatuan 3 urte arte seme-alaba espetxean izateko aukera ematen zaizkizkien emakumeek, aukera hori egikaritzeko hainbat establezimendu daude: hiru Amentzako Kanpo Unitate, lau Barne Unitate eta familientzako moduluak duen espetxe bakarra baitago. Testuinguru horretan, beren bizilekutik gertu zigorra betetzearen edo seme-alabak haiekin baina familiatik urrun edukitzearen artean erabaki behar dute. Honekin batera, emakumeen rol tradizionala indartzen duen tratamendu sexista eta estereotipatua nagusitzen da genero-rolen arabera espetxe barneko lan-eta prestakuntza-eskaintzan, emakumeen neurrigabeko medikazioan eta otzantasunaren exigentzian zein funtzionarioen eskutik emakume presoek jasandako tratu iraingarri eta eraso fisiko, psikologiko eta sexualetan. Orobat, Euskal Autonomia Erkidegoko espetxeetara hurbilketa eginez, aipatzekoa da Euskal Herrian aurkitzen ditugun hiru espetxeetan (Arabako espetxea, Martuteneko espetxea eta Basauriko espetxea) 2020an guztira 116 emakume preso zeudela (preso guztien % 9), Espainiar Estatuaren beste kartzelatan ikusten diren profil antzekoekin. Euskal espetxeetan aurretik aipatu diren problematika berdinak (gradu-progresioa, indibidualizazioa, deserrotze sozial eta familiarra, bisitak jasotzeko eta baimenetan etxera joateko zailtasunak) sortzen dira. Gainera, Martuteneko kartzelan modulu bakarra egoteak emakume presoek klasifikazioa ezinezkoa bihurtzearekin batera, modulu hori errespetuzkoa izateak moduluaren ustezko borondatezko izaera

zalantzan jartzen du. Honekin batera, azpimarratzekoa da EAEn bakarrik bi pisu daudela bigarren graduaren (ateratzeko baimenak dituztenei), hirugarren graduaren edo baldintzapeko askatasunean dauden emakumeei zuzenduta, Araban (Gasteiz) eta Bizkaian (Bilbo) kokatuak. Harrera-etxeen urritasun hori kezkarria da, izan ere, pisu horiek arlo desberdinetan laguntza ematen dute, murgilduta zeuden pobreziaren eta indarkeria matxistaren dinamikatik ateratzen laguntzen dute, espexetik irteteko aukera ematen diete nora joan ez duten emakumeei, bai eta irteera horien lorpena ere erraztu egiten dute. EAEn emakume presoek zuzendutako baliabide eta zerbitzuen urritasuna nabaria bada, ama diren emakume presoek egoera are larriagoa da. Izan ere, ez dago Amentzako Barne Unitatetik, Amentzako Kanpo Unitaterik, Amentzako Mendeko Unitaterik ezta Modulu Familiarrik, ez eta ama diren emakume presoentzat zuzendutako harrera-etxerik ere. Urrietasuna baliabide materialetan antzeman ez ezik, espexetan dauden gizarte langileengan ere nagusitzen da. Hain zuzen, Arabako espexeko gizarte langile baten arabera bederatzi gizarte langile daude ia 700 presoetarako, horrek beren esku-hartzearen kalitatean eragina duelarik. Testuinguru honetan, 2021ean Eusko Jaurlaritzak espexe-sistema kudeatzeko eskumenak jasotzeak aukera gisa deskribatzen dute elkarriketatuek, izan ere, espexeen kudeaketaren hurbiltasunak aldaketak erraztu ditzake, erreklamazioak hurbilago dagoen administrazioari egingo zaizkiolako. Orain arte Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak argitaratutako informazioaren arabera, euskal espexe-sisteman genero ikuspegia duten neurriak txertatzea aurreikusten da. Edonola ere, elkarriketatuek azpimarratzen dute neurri puntual horiek ezin dutela benetan beharrezkoa den eztabaida baztertu, profil eta ibilbide jakin batzuk dituzten pertsonen espexeratzearen eta espexeldiaren zentzu orokorraren eztabaida, alegia. Lanari amaiera emanez, GRAL honetan ondorioak eta proposamenak jasotzen dira. Horrela, lehenik, ondorioztatzen da emakume presoek tratamendu sexista, estereotipatua eta diskriminatzailea jasaten dutela espexe sistemaren baitan. Testuinguru horretan, 2021ean Eusko Jaurlaritzak espexe-sistema kudeatzeko eskumenak jaso egin zituelarik, EAEn emakume horien espexeldia hobetzeko proposamen asko egin daitezke, hala nola, gizarte kontzientziazioa bultzatze eta genero-diskriminazioetan esku-hartzeko borondate politikoa sustatze aldera emakume presoek buruzko azterketa feministak eta insterseksionalak burutzea eta zabaltzea, funtzionarioek genero berdintasunean formakuntza jasotzea, genero-rolak hausten dituzten lan- eta prestakuntza-aukerak sustatzea edota emakumeek pairatzen duten deserrotze soziala leuntzeko eta hirugarren graduaren eskuratzea errazteko baliabideak sortzea. Bigarrenik, ondorioztatu egiten da oro har espexeratzean amaren eta seme-alaben arteko harremana mantentzea eta sendotzea garrantzitsua dela, adingabeak bere beharretara egokitutako testuinguru normalizatu batean bizitzea ere oinarrikoa izanik. Beraz, etorkizuneko euskal espexe-sisteman premia handia da emakumeen birgizarteratzea eta adingabeen ongizatea zigorraren ezarpenaren ginetik jartzea eta delitu-urraketa bat egin duten amentzat bere seme-alabekin (hiru urtetik gorakoak ere) egoteko espexetik kanpoko baliabideak eta alternatibak sortzea. Edonola ere, amek ez ezik, aita presoek guraso gisa dituzten betebeharrak eta eskubideak autonomia bultzatzen duten testuinguru normalizatuaren egikaritzeko aukera ere eman beharko litzaieke, haurren zaintzaren feminizazio tradizional eta patriarkalari aurre eginez. Azkenik, lan honen hirugarren ondorioa da pertsona presoak sistema patriarkal, kapitalista, kolonialista eta liberalaren

artikulazioaren ondoriozko bazterketa estrukturalaren emaitza direla askotan. Gainera, lan honetan ikusi bezala, populazio penitentiario handi horren emakume presoan artean baztertutako eta pobretutako emakumeen gainordezkapena ematen da. Gauzak horrela, prebentzio lana sustatu behar dugu, gizartean nagusi diren diskriminazio eta desberdintasunei aurre egiteko politika publiko sendoak eta integralak bultzatuz, izan ere, gizartean norbanako guztien arteko berdintasun handiagoa lortzen dugun heinean, espetxeetako populazioa murriztuz joango da. Horrekin batera, arazo estruktural baten aurrean egonik, Eusko Jaurlaritzak espetxe-sistemaren eta askatasunaz gabetzeko zigorren zentzuari zein horien balizko alternatiben aplikazioari buruz eztabaidatu behar du. Hala, ezin gara mugatu adabaki gisa funtzionatzen duten proposamen erreformistak egitera. Beraz, espetxe-sistemaren barneko diskriminazioen erroa sexismoan, arrazismoan eta klasismoan oinarritzen den sistema bat dela kontuan hartuta, halako sistema batetik aldaketa feminista eta interseksional sakonak eta iraultzaileak bultzatu ezin direla ohartzetik hasi behar gara ama eta emakume espetxeratuen inguruko problematika lantzen.

2030 Agendaren GIH Ekarpenak

GRAL honek 2030 Agendaren hurrengo bi helburuei erantzuten die: genero desberdintasuna eta desberdintasunak murriztea. Genero berdintasunaren helburuari dagokionez, esan beharra dago lan honen helburuen artean aurkitzen dela, patriarkatuan eta androzentrismoan oinarritzen den espetxe-sistemaren baitan dauden emakume espetxeratuen (batez ere ama diren emakumeen) errealitatea eta jasandako diskriminazioak ikusaraztea zein emakume horien gaineko ikuspegi estereotipatua deslegitimatzea. Horrekin batera, Euskadiko espetxeetan zehazki ama diren emakume espetxeratuei eskaintzen zaizkien programa eta zerbitzuen multzoa aztertzea eta Euskal Herrian emakume presoek zuzendutako diskriminazioak desagerrarazteko eta genero berdintasuna emendatzeko proposamenak burutzea da lan honen beste helburu bat. Era berean, GRAL honetan genero ikuspegiak gain, ikuspegi interseksionala hartu da ardatz gisa, horrela, 2030 Agendaren diskriminazioak murriztearen helburuari ere erantzuna emanez. Preseski, lanean azaldu bezala, sexu bidezko diskriminazioak ez ezik, espetxe-sisteman klase, arraza, etnia, erlijio, politika edota hizkuntza bidezko dominazioan (beste batzuen artean) oinarritzen diren diskriminazioak ere dira nagusi. Hau da, ohartarazi egiten da espetxeak inpaktu bereziki larria daukela emakumeengan eta, era berean, inpaktu horren larritasuna areagotu egin daitekeela hainbat faktoreen gurutzapenarekin, hala nola, pertsona arrazializatua izatea, migratzailea izatea edota hegemonikoa ez den sexu-orientazioa eta genero-identitatea izatea (hala nola, zisnormatibitatek eta heteronormatibitatek urruntzea), aniztasun funtzionala izatea edo osasun mentalari lotutako nahasmendu edo gaixotasun bat izatea. Beraz, diskriminazioen interseksioa ematen da presoak sistema patriarkalaren dominazio-sistemak pribilegiatzen duen eredu hegemonikotik gero eta gehiago urruntzen diren heinean. Hots, diskriminazio maila edo kapa berriak jasango dituzte, hauek elkarri gehitu dakizkiokeelako. Horrela, patriarkatuak modu isolatuan lan egiten ez duela kontuan hartuz, espetxe-sisteman nagusi diren beste dominazio-sistemak identifikatu eta ikusarazi egiten dira, kolektibo desberdinen arteko desberdintasunak murrizteko helburuarekin. Beraz, GRAL honetan egiten den

azterketa, hain zuzen, espetxean dauden emakumeek eta horien seme-alabek espetxeetan bizi duten egoera eta eskaintzen zaizkien baliabideak eta zerbitzuak ikuspegi feminista eta interseksional batetik aztertzea, gure gizartean genero berdintasuna eta diskriminazioen murriztea bultzatzeko garrantzitsua da arrazoi ezberdinengatik. Alde batetik, errealitate hori ikuspegi feminista eta interseksionala ardatz hartuz ikertzen duten lanen hutsune bat dago akademia mailan, espetxe-sistemari buruzko datuen analisi patriarkal, androzentrikoa eta etnozentrikoa gailentzen delarik. Hau da, espetxeei eta presoeri buruzko ikerketa gehienetan ez da genero ikuspegia eta ikuspegi interseksionala kontuan hartu, horrek emakume presoeri eta beste kolektibo zaugarri batzuen errealitatea ikusezin bihurtu eta emakumeen eta gizonen artean ematen diren aldeen azterketa eta lanketa zailtzen du. Gauzak horrela, emakumeen ikusezintasunak emakume presoeri eta horien haurren beharrak asetzeko baliabideak eta zerbitzu egokiak sortzea eragozten du, emakume presoek tratatu bidezkoa jasotzea ere galarazten duelarik. Bestetik, azpimarratzekoa da espetxeratuta dauden emakumeen bizipenak eta beharrak aztertzeke abagunea aldekoa dela Euskadin; preseski, Espainiako Gobernuak espetxe-sistemaren eskumenak eskualdatu dizkio Eusko Jaurlaritzari, azken horrek espetxeen antolamendurako, araubiderako eta funtzionamendurako eskumen eksklusiboa bereganatu duelarik. Testuinguru honetan, momentu aproposa da, genero ikuspegia eta ikuspegi interseksionala kontuan hartuz, kartzelan dauden emakume eta horien haurren zein beste kolektibo zaugarrien errealitatea ikusarazteko eta haien beharrei erantzuteko baliabide eta zerbitzuen hobekuntzarako proposamenak egiteko, horrela gure gizarte diskriminazio eta desberdintasun desberdinei aurre egiten lagunduz.